

**ZUBEROAKO TZINTZARROTSETAKO
KOPLA ZAHAR BATZUEN GAINEAN****1. Sarrera**

Euskaltzaindiko V. Herri Literaturako jardunaldiak euskal antzerkiaz egin ziren Tolosan, 1998. urteko abenduan, Antonio Maria Labayenen jaiotze-mendeurreneko karietara. Mugalde bietako zein kanpo herrietako adituek antzerkiaren gainean egin zituzten hitzaldiak *Euskera* aldizkarian argitara ziren. Gure herri antzerkigintzan, handi-handika hitz eginez, Iparraldean pastoralak ez ezik, berdurak, maskaradak, tzintzarrotsak eta astolasterrak ere badira.

Artikulu honetan aspaldi bateko Zuberoako tzintzarrotsetako koplak zahar batzuen gainean hitz egingo dut. Koplak zaharrek dira alde bitatik. 1924 baino lehenagokoak direlako, batetik, eta koplak zaharren egitura dutelako, bestetik. *Tzintzarrotsak* zuberotarrez edo *galarrotsak* baxenafartarrez deitzen dira bigarren ezkontzen ziren alargun zaharrei egiten zitzaizkien antzerkia (edo parantzerkia) zintzarri eta turuta joz zein koplak kantatuz. Nola egiten ziren, nortzuk egiten zuten, noiz egiten zuten, ez dut aztertuko lantxo honetan. Zehaztasun horiek jakin nahi dituenak jo beza G. Hérelle edo P. Urkizuren lanetara, edo goraxeago aipatu dudana *Euskera* aldizkariko Tomín Peillenen “Bizitzaren komediak Zuberoan” artikulura¹.

¹ Bibliografia alde bitatik behintzat eman daiteke literaturatik zein etnografiatik. Bigarren hau ikusteko Atlas etnográfico de Vasconia. Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia lan ederrean, “Casamiento de viudos y viejos” 656-666 or.

2. Tzintzarrotsetako koplak: egitura, ezaugarriak

Parateatroaren Zuberoako izena *tzintzarrotsak* zen eta Baxenafarroan *galarrotsak*, gorago esan dudanez. Lehen hitza, (*t*)*zintzarri* eta *hots* hitzetik eratorria den hitza da; eta bigarre-na, *gare/joare* eta *hots* hitzen bidez eratorria da. Hitz biak pluralean erabili ohi dira. Tzintzarrotsak edo galarrotsak egin edo jotzen zizkieten berandu edo zaharturik ezkontzen zirenei. Erdarazko “cencerrada” adierazten dute tzintzarrots-galerrotsek.

Ezagutzen ditudan tzintzarrotsetako koplarenrenkadek gainerako eske-kopla errenkaden egitura dute. Gehienetan sarre-ra finkatu xamar batez hasten dira. Agertzen diren sarrerako lehen kopla, bigarren edo hirugarrenean baimen baten berri ematen da. Eske-kopla gehienetan baimena herriko alkateak ematen duela esan ohi da edo obispoak ere bai. Tzintzarrotsetako lehen kopletan agertzen den baimen-emailea herriko apeza edo, kasu harrigarriagoan eta ironikoan, jakina, senarra izan ohi da. Hona Txomin Peillenek dakartzanak:

Bada hotz, bada bero
gaur egin dezagün tzintzarrots
Jaun erretorak erran beiteikü
egin ditzagün gaü (sic) oroz.

Türüt eta türütots
gaur eginen dügü tzintzarrots
Peirot hunek erran beiteikü
egin dezagün gaü oroz.

Eske-kopletako sarrera-kopla batean askotan eman ohi da hiri biren aipamena. Larraineko albadetan, kasurako, honako hau agertzen da:

Parise eta Bayouna,
orai girade gu houna;
etcheko jauna koumpañareki
Jinkouak deizula gai houna!²

² Artikulu honetan, guk dugun lehen testigantza idatzia hartzen dugu oi-narriztat, hau da Edward S. Dodgsonen argitara bezala. Gaurko grafiara eka-

Kopla horren gisako mila adibide eman genitzake, baina guri dagokigun kontua da ea tzintzarrotsetan ere modu horretan abiada hartzen duen kopla-errenkadak. Guk hemen argitarara dakarguna honelaxe hasten da:

Maoule eta Bayouna,
ene gazte lagunak gaour houna
tzintzarrotsen eguiteko
haitatu dugu gai houna.

Tzintzarrotsak egiten zaizkien senar-emazteek beti edo ia beti hartu ohi dituzte izen finkoak eta berak Zuberoetako parateatroan. Izen horiek *Peirot* eta *Peirotina* dira. Senarrari trufa egiteko “Peirot” deitzen zaio eta emazteari “Peirotina”. Halaxe da Peillenek bildu dituen Allande Artigau Elixagarai ligiarren adibideetan, J. Casenave Harigilerenean zein hemen argitaratuko ditudanetan. Hérellek ere jakinarazten digu zehaztasun hau honelaxe baitio bere artikuluari: “L’usage est d’y nommer “Peyrot” et “Peyrota” l’homme et la femme charivariés” 513or. (aipatu artikulua).

3. Tzintzarrots eta xikitoetako koplak

Ez dugu, zoritxarrez, Zuberoako tzintzarrotsetako kopla-errenkada aberatsik ez askorik ere, ez eta xikito-errenkada edo txikito-sail handirik ere³. Ezagutzen ditugun xikito-errenkada ia bakarrak Jauréguiberry doktoarearen kontakizun bateko hiru aleak⁴ eta Txomin Peillenek argitara zituen *Igela* aldizkariakoak dira. Baliteke, begi bistakoa denez, tankera horretako kopla-sail gehiago izatea ere, baina, egia aitortzera, ez

rriz: Parise eta Baiuna/Orai girade gü huna/...

³ Bietara ikusten dugu idatzia xikito/txikito. Bi aldaeretatik lehena da hedatuena. Pierre Lhandek xikito dakar eta honelaxe zehazten du: S. Jeu de rimes grossières pratiqué entre bergers et dont chaque couplet se termine par ce mot.

⁴ JAUREGUIBERRY, Jean “Chikitoka”, Gure Herria, 1930, X, 268-270or.

ditugu askoz gehiago ezagutzen. *Igela* aldizkarian agertzen den xikito-errenkada bera eman zuen berriz argitara Patri Urkizuk “Albadak, xikitoak eta erran zaharrak” ASJU (VII) 1973, 104-116 or. lanean. Bada bi lan horietaz landa Julien Laplace mauletar espartingilearen antzerki lan interesgarri bezain labur bat: *Chikito Chikitokan. Comedie en 3 actes*. Oloron, 1909. Lan honetan, ostera, xikitoak ez dira erabat herri-herrikoak, artzainen artean egin ohi ziren bezalakoak, beste gisa batekoak baizik. Tzintzarrotsetako koplak Patri Urkizuren lanetan bildurik ikusten ditugu, batez ere. Zuberotarrek guri, manex garenoi, xikito eta tzintzarrotsen gaineko argitasun zein *corpus* berriak eman diezazkigukete inolako dudarik gabe, ariera horien arrasto guztiak erabat galdu baino lehen.

Xikitoa zer den jakiteko alda dezadan hona Txomin Peillenek *Igela* aldizkarian dakarrena:

“Xikitoak pertso berdeak dira artzainek egiñak. Gure herrian olha izena dauka beste herrietan sel edo korta izenekin ezagutua dena; eta duela bost urte oraino artzainik falta ez zenean, olha batetik bestera, ibar batetik bestera artzainek elgarri, holako koplak horietatik, botatzen zuten. Eunka dira xikitoak baina folklore bildumek baztertzen dituzte, nahiz horiek ere populuaren frutuak izan”⁵.

Jauregiberrik bere “*Zer da hori, chikitoka?*” lantxo politean zehaztasun berriak ematen ditu xikitoen gainean:

“Jauna, hori düzü Zibero zokho huntako tchostaka zahar bat, güdüka bat elhez eta oihüz. Mendi bichkar batetarik beste mendi bichkar batetan, artzain batek beste artzain bat ikhusi bezain sarri, igortzen diozü chikito bat, eta bestiak chikito batez ihardesten. Chikito bakhotchak badizü lau breset ahal bezain zorrozki huntürük. Eta ürhentzeko bethi ber hitza: *chikito!*”

⁵ Hordago argitaletxeak 1979an egin zuen *Igela* aldizkariaren berrargitarapenetik ekarri dugu hona, 80or.

Zer-nahi batak bestiari erraiten ahal diozū solas hortan, elherik tzarrenak. Batak ez bestiak ez dizū khechatzeko zūzenik; bena bai ber chedian ihardestekua. Hola da chikitokako legia!”

Xikitoetan “zer-nahi hitz” esan zitezkeen eta zernahi horietan hitz berde, apalgarri eta iraingarriak sartzen ziren “elherik tzarrenak” zuberotarrez esateko. Xikitoak eta tzintzarrotsetako koplak, beraz, berde suna dutenak dira eta askotan iraingarriak zein gustu txarrekoak. Badira, hala ere, irudimen handia agertzen duten aleak. Pentsatzekoa da kopla hauek garai batean izan duten aberastasuna ez dela islatzen folklore-izkribuetan. Arrazoiengatik askorentzat begibistakoa izango dela deritzat. Zuberoako xikito zein tzintzarrotsetako kopla gutxi papereratu dira, beraz. Kopla berdintsuak ere aurki daitezke bateko zein besteko kopla-sailetan. Hona adibide moduan bi:

XIKITOAK

(IV)

Eraik'ak erhia,
hunk'ak zelia,
ordian ükhenen dük, bai,
gure xerb'ama zaharraren alia.

(XXI)

Araoultzia bilho gabe,
aphou buztan gabe;
hebetik hora ikhousten teat
koskoillak batera bilhorik gabe.

TZINTZARROTSETAKO KOPLAK

(X)

Oyhaneko bago zaharran,
haren peko zaho zaharra;
entzoun diak barda estali diala
gour cher'hama zaharra.

(IV)

Peirotina zahartu
alia zirozu pelatu.
sagarroy larruz behar zirozu
laster forratu.

BB

Beñat esker dereiat,
 hiru perruka badiat,
 sagarroi larruz eginik eta
 hire begiratzen diat.

Testigantza hau Agosti Chahok emana da *Biarritz entre les Pyrénées et l'Océan* (Baiona, 1857, 159 or.). Hemen agertzen den “sagarroi larruz” (*sagarroi larrüz* behar luke gure grafian, geure ustez) egindako perruka eta goraxeagoko koplakoaren arteko berdintasuna begien bistakoa da. Bateratasunak gutxi balira, hona argiago bat Francisque-Michelek bere *Le Pays Basque* lanean 368-369 orrialdeetan, bi bertsoarien arteko ziri-bertsoetako bi ahapaldi bakarrik:

–Idiar, hobe huke hic
 Bilho lintzia utciric.
 Nic perruca emanen dat, *sagarroi larruz eguinic*;
 Buru chourien gordatceco, harec kalitate badic;
 Halacobat behar duk hic.

–Beñat, esker dereiat,
 Hirur calota batiat:
 Hire *sagarroi larruzcoaz* beharric batere eztiat.
 Ihauretaco beguira ezac, joaiteco ohiarat
 Petiriekin lotcerat⁶.

Sail bateko zein besteko koplarenkadetan badira lizunak ez diren ale polit askoak ere. Badira, gainera, eta hau da inolako zalantzarik gabe konturik interesgarriena, koplazaharren teknikako irudi miragarriak ere. Alderdi honetatik erabat az-

⁶ Zehaztasun gehiago nahi dituenak jo beza Piarres Charriton “Iparraldeko bertsolari eta olerkariak XIX mendean” in XIX. Mendeko olerki-bertsogintza 11-85 or. Gauontza sorta, Labayru ikastegia 1990. Bertso beren aldaera gehiago Louis Dassance “Chronique de la chanson basque. A propos de Beñat MARDO” in Gure Herria, 1967-ko Hazila, 288-296 or.

tergarri badira ere kopla hauen alderdi hori hurrengo bate-rako utziko dut azterkizun.

4. Gure kopla errenkadaren nondik norakoak

Hona ekarriko dudan kopla-errenkadaren nondik norakoa eta zergatia hitz bitan azalduko dut. G. Hérellek artikulu bat argitara zuen RIEV aldizkarian, 1924an. Izenburua: “Les Charivaris nocturnes dans le Pays basque français”, 505-522 or. Artikulu horretan bost aleko kopla-errenkada bat agertzen da. Bost aleak, gainera, ez dira osorik agertzen, lizunkeriak edo berdekeriak mozturik baizik. Arrazoiaren berri ematen du zeharka Hérellek berak honelaxe aitortzen baitu:

“Les paroles sont très incongrues. Voici quelques passages qu’il est possible d’en citer”.

Kopla-errenkada, geroago jakin dugunez, hamaika alekoa zen eta hamaika aleak agertzen zaizkigu Patri Urkizuk prestatu zuen *Bertsolaritzaren Historia Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak I Anonimoak*, 185 zenbakian, 279-280 orrialdeetan. Kopla horien iturri bezala U-2 dakar, hots, *Astolasterrak. Hurbiltze saioa eta Testu Bilduma*, argitaragabea. Kopla horiek, beraz, *Bertsolaritzaren...* prestatzailearen lan argitara gabeko batean dute iturria. Ez dut uste aurkikuntza handirik egin dudanik, Julio Urkixoren paperen artean, J.U 2.560 signatura duen “CHARIVARY souletins: specimen de couplets traditionnels” izenburuko dokumentua aurkitu dudanean. Dokumentu hori argitara eman nahi dugu lantxo honetan. Delako dokumentu horretan desberdindu egiten dira *u/ü* bokaleak *ou/u* grafemen bitartez. Gure uste apalean kopla-errenkada hori argitara den aldioro zoritxarrak jota agertu da. Urkixoren aldizkarian artaziak mozturik agertu zen. Patri Urkizuren lanetan ez dira desberdintzen *u/ü* direlakoak. Zuberoako bokalismoaren ezaugarririk behinena markatu ga-

be agertzen dela iruditzen zait. Ez da kasu bakarra. Euskaltzaileak Zuberoako hainbat testu txarto transkribiturik ikustera ohitu gara. Ez dugu jakin askotan u grafemaren azpian zein hots ezkututzen den. Argitara dakartzadan koplak hauen lehen transkribatzailea zein testigantza emalea Zuberoako testuak transkribatzeko arrasto zahar bati jarraitzen zaio *ou/u* grafema bikun zein bakunaren bidez *u/ü* hotsak desberdintzeko. Zuberoako bokalak ez ezik, kontsonanteak transkribatzeko ere bada nahikoa arazo. Piarres Lafittek zioen bezala, Zuberoako kanta-kaieretan kontsonante txistukariak desberdintzeko sistema finkatu xamar bat zegoen eta horrexegatik kantak kaie-rean dauden daudenean, lehen dokumentu-oinarri bezala, argitaratzeko zalea zen⁷. Biderik onena bi transkripzio eskaintzea dela iruditzen zait jatorrizko dokumentuan datorren bezala eta transkripzioa gaurkotua. Era horretara, transkripzio sistema zaharra ezagutzeko modua eta gaur eguneko eguneratzea ikusteko modua dago.

Zubererako ezjakina apur bat behintzat kendu edo arintzeko asmoz zenbait lan erabili ditut. Esku artean izan ditudanak, besteak beste direla, honako hauek dira: René Lafon maisuaren “Sur la voyelle ü en basque” (BSL LVII:1, 1962, 83-102), Koldo Mitxelenaen *Fonética histórica vasca* eta Jean Larrasqueten *Le Basque de la Basse-Soule orientale*. Paris: Libraire C. Klincksiek 1939 eta *Le Basque Souletin Nord-Oriental, T. I.* Introduction. Paris: Maisonneuve, 1934.

Ez dakigu tzintzarrotsetako koplak nork bildu zituen, nori bildu zitzaizkion ere ez. Ez dakigu zehaztasunez biltzailea eta berriemaileak nortzuk diren. Zuberoakoak direna badakigu. Zuberoako zein herritakoak diren ez. Noiz bildu ziren ere ez dakigu. Dakiguna da 1924ko uztaila eta ekaina baino lehen-

⁷ Pierre Lafitte “Deux chansons de Beñat Mardo découvertes par Le R. P. Lhande” in *Gure Herria* 1950ko Hazila-Abendoa 293-299or.

gokoak direla eta Hérellen bidez Julio Urkixoren hondoan edo fondoan aurkitzen direna.

Herri literaturazalea naiz, halaberharrez. Euskarazko herri-literaturako hainbat esparrutako aleak urriak dira, zoritxarrez. Urriak ez ezik, gaizki argitaratuak ere bai. Sitsak jotako oihalpusketak zein zedenak jandako zurak dirudite gure hainbat testuk. Gure zenbait maisuren lanetan ere hutsak ikustera ohi-tuak gara. Gure begiak ere, Mogelek *Confesião on*-ean dioen bezala, “utsberac eta engañacorrac” dira.

5. Georges Hérellen euskal transkripzioa artikuluan

G. Hérellek egiten dituen lanak ondo dokumentatuak dira. Gure artikuluan zehaztasun handi eta argigarriak eman zituen xaribarien gainean. Jatorrizko euskarazko hamaika kopletatik, ordea, lehen bostak bakarrik transkribatu zituen. Lehen bostetatik, ordea, oso-osorik lehen biak. Gainerako kopletan hutsu-neak datoz. Hona hemen:

Maoule eta Bayouna
Ene gazte lagunak gaour houna
Tzintzarrotsen eguiteko
Haitatu dugu gai houna.

Tzintzar eta tzintzarrots
Tut eta tutots
Jaoun erretorak eran dereiku
Eguin ditzagun gai oroz.

Haltzak eijer ostoua
Samin dizu gozoua
Hounki jin zideiela
Ast saldoua
Peirot hori zahartu

Bizkarra zirozu okhertu

.....

Peyrotina zahartu

.....
larruz behartu
 Laster forratu.

Hirugarren koplari, esaterako, zer *Ast* *saldoua* delakoa jatorrizko dokumentuan *Astopito saldoua* da, hots, *astakirten saldoa* edo *taldea*. Hirugarren koplari erdia baino ez du transkribatu Hérellek. Falta den bigarren erdia *Peirotinaren gagna igaraiteko/ zurubiak behar tu* da. Koplaren bigarren erdia, beraz, lizunxkoa da. Senarra emaztearen gainera igoteko esku- eskalerak behar dituela dio. Emaztea izugarri lodia eta handia dela adierazten du eta gizona guztiz ezindua edo sortua dagoela. Bosgarren bertsoan *alia zirozu pelatu* falta da, hau da, “alua pelatu edo ilegabetu”. Koplari hauek, hitz esanguratsuak kenduz gero, ez dute zentzurik. Hérellek koplari frantses itzulpena ere ematen du:

“Mauléon et Bayonne. Mes camarades de jeunesse sont venus ici, ce soir, pour faire les tzintzarrotsak. Nous avons choisi une belle nuit.

“Sonnettes et sonneries de sonnettes, cornes et cornements de cornes, monsieur le curé nous a dit de les faire tous les soirs.

“L’aulne a une jolie feuille dont le goût est aigre. Soyez les bienvenus, tas de paillards.

“Ce Peyrot est devenu vieux; son dos s’est courbé....

“Peyrota est devenue vieille;..... Il faudra le lui fourrer d’une peau de hérisson.....

“Le peuplier a les feuilles rondes: elles frissonnent toutes, quand il vente.....

“Le vieux hêtre de la forêt, la vieille mousse qui s’étend dessous...”

5. Koplén transkripzioa dela eta

Ez ditut kopla hauek lizunkeria edo leunkeriagatik edo dena delako keria edo tasunagatik berriz argitaratzen. Ez dut, Ramon Etxezarretaren *Diccionario erótico del euskara clásico y popular. Hizkera erotikoa. Dictionnaire érotique de l’euskara* (Hordago 1983) lanean bezala, edo Juan Martin Elexpururen *Euskal lizunkeriaren antologia* (Txalaparta 1999) lanean bezala, gure literatura urri xamarreko pieza gordin zein pasarte kilikagarriak eman nahi. Zuberoako euskararen ederra, garai bateko parateatroa edo antzerki molde baten testigantza eta herri literaturako kopla esparrua izan ditut gogoan batez ere kopla hauek berrargitaratzean. Kopla esparru horretan interesgarrienak III. eta IX. koplak dira. Horietan ikusten da garbienik kopla zaharretako irudia bi arbolaz osatua. Bi arbolak (*b*)altza eta *publiertzia* dira. Eta bietan ematen da irudiaren lehen imajinan arbolon ostoaren berri. Haltza badakigu zer arbola den, *publiertzia*, ordea, zer arbola da? Inongo euskal hiztegitan aurkitu ez dudanez gero, frantsesetik datorrelako susmoa egin dut. Aukeretako bat frantseseko *pourpier*⁸ da, “horri txiki eta ugariko landarea” baita. Bigarren aukera bat *peuplier* frantseseko hitza da erdarazko “olmo” edo euska-

⁸ Hau da gure koplari zentzua emateko aurkitu dugun hitz frantsesa. Petit Larousse hiztegiak honela dio: “Plante à petites feuilles charnues, dont une espèce a été cultivée comme légume, et une autre, originaire de l’Amérique du Sud, est cultivée pour ses fleurs à coloris variés.

2560
(a)

Chanivarij souletins
Specimens de couplets traditionnels.

Maoule eta Bayouna
Ene gazte lagunak gaour houna
Ezintzarrotsen ejuiteko
Haitatu dugu gai houna.

Ezintzar eta ezintzarots
Tut eta tutots
Jaour erretorak eran derrika
Eguin ditzagun gai oroz.

Haltzak eijer ostoua
Jamin dixu gozoua
Hounki jin zideiela
Astapito saldoua.

Peirot hoi zahartu
Bizkarra zirozu okhortu
Peirotinaren gagna igaraiteko
Juruhiak behar tu

Peirotina zahartu
Alia zirozu pelatu
Jagarroy larruz behar zirozu
Laster forratu.

Peirotina Jusa
Behi zahar bat bezala
Peirot hoi eran dirozu
Estak bezan behala

Peyrotina Kachetan
Peyrot hoi kaideran
Hantike biak eror eta
Hasi dira chikokan

Peyrotina lahouan
Ourdan khaka bat ahouan
Peirot horek eman dirorju
Eripota zelakouan.

Publiertziak ostouak biribil
Aize denian oro ari dir-dir
Aouchilik, aouchilik.
Peirot pito zirzill.

Oy haneke bago zaharvan
Haren peko zaho zaharna
Entzoun diak banda estali diala
Gowu cher' hama zaharna.

Peirotina zahartu
Letaginak gastatu
Ezteitako behar zirozu
Khaka plat bat prestatu.

razko “zumar” hitzaren esangura duena. Bi aukeratarik bigarrena da, zalantzarik gabe, koplaren irudian agertzen den arbolaren izena. *Peuplier* hitzari erantsirik “arbola” adierazteko ekialdeko euskalkietako *-tze* atzizkia dugu, sortadeko *-ondo* atzizkiaren kidekoa⁹. Badira adibide gehiago ere kopleta irudietan. Hor dira, esaterako, artikulua eta guzti *gaztanatzia* eta *gerezitza* “gaztaina” eta “gerezi”, edo, nahiago izatera, *gaztainondo* eta *gereziondo* hitzen parekoa. Modu horretara ondo ulertuko litzateke “*Publiertziak ostuak biribil/aize denian oro ari dir-dir*”. Kopla zaharretako irudian haltza, gerezia, saratsa, ametza bezalako arbolak ez ezik, sagartze bezalako arbolak ere agertzen dira. Gorago esan dugunaren berme hona xikito bat:

Gaztanatzia houn duk kholte guei,
guerezitza ere bai taoula guei;
hi ere bai arrapostatzeke beno
alhorreko kusso guei.

Euskaltzalea naizenez gero, leku guztietako euskara maite dut. Zuberoako euskara egiten zaigu bizkaitarroi urrutien. Irakurri eta aztertu arren eskuetaratu ditugun euskalki horretako hainbat testu, ez gara, jakina, delako euskalki horretan ez maisu, ez maisutzako, ez maisu usteko. Hau guztia kontutan izanik, hiru eratarata emango dut testua. Ezkerrean jatorrizko testutik egindako transkripzio zuzena eta eskubian gaur eguneko ortografiara ekarria. Gaur eguneko diodanean ez dut *aize* hitza “haize”-ra aldatu, ez eta *aouchilik* delakoa “hago ixilik” batera, hizkuntza mintzatutik zuzenen eta egokien den formara baizik.

Jatorrizko testuak ez du ia puntuaziorik, gure gaurko grafiara ekarri dudana, ordea, gutxieneko puntuazioz jantzi dut.

⁹ Pierre Lhande hiztegian *-TZE* atzizkiaren bigarren adieran honela dator: “terminant un nom d’arbre, il signifie: pied, plat de. Fikotze bat, un figuier. Gerezitze bat, un cerisier.

Lantxo honetan testu gaurkotuaz gainera jatorrizko testua ere eman nahi dut. Hamaika kopleta hitzak ondo xamar ulertzen dira. Iluntxoena beharbada VII. koplako *kachetan* eta *chikokan* egiten zaizkit. Pierre Lhanderen hiztegiko *kaxa/kbaxa/kaxeta* zein *xiko* hitzak ikusirik ez dugu argi handirik bilatu eta alferlana dela deritzagu koplaz koplako esanguraren berri hemen ematea. Bihoaz, beraz, agindu dudan bezala bi testuak.

1
Maoule eta Bayouna
Ene gazte lagunak gaour houna
Tzintzarrotsen eguiteko
Haitatu dugu gai houna.

1
Maule eta Baiuna,
ene gazte lagünak gaur huna;
tzintzarrotsen egiteko
haitatu dügü gai huna.

2
Tzintzar eta tzintzarrots
Tut eta tutots
Jaoun erretorak eran dereiku
Eguin ditzagun gai oroz.

2
Tzintzar eta tzintzarrots,
tüt eta tütots;
jaun erretorak er[r]an dereikü
egin ditzagün gai oroz.

3
Haltzak eijer ostoua
Samin dizu gozoua
Hounki jin zideiela
Astapito saldoua.

3
Haltzak eijer ostua
Samin dizü gozua;
hunki jin zideiela
astapito saldua.

4
Peirot hori zahartu
Bizkarra zirozu okhertu
Peirotinaren gagna igaraiteko
Zurubiak behar tu

4
Peirot hori zahartü,
bizkarra zirozu okhertü;
Peirotinaren gaña igaraiteko
zürübiak behar tü.

5
 Peyrotina zahartu
 Alia zirozu pelatu
 Sagarroy larruz behar zirozu
 Laster forratu.

6
 Peyrotina susa
 Behi zahar bat bezala.
 Peirot hori eran dirozu
 Estal lezan berhala

7
 Peyrotina kechatan
 Peyrot hori kaideran
 Hantik biak eror eta
 Hasi dira chikokan

8
 Peyrotina leihouan
 Ourdan khaka bat ahouan
 Peirot horrek eman dirozu
 Tripota zelakouan.

9
 Publiertziak ostouak biribil
 Aize denian oro ari dir-dir
 Aouchilik, aouchilik.
 Peirot pito zirzill.

10
 Oyhaneke bago zaharran
 Haren peko zaho zaharra
 Entzoun diak barda estali diala
 Gour cher'hama zaharra.

5
 Peirotina zahartü,
 alia zirozü pelatü;
 sagarroi larrüz behar zirozü
 laster forratü.

6
 Peirotina süsa
 behi zahar bat bezala.
 Peirot hor[r]i er[r]an dirozü
 estal lezan berhala

7
 Peirotina kexatan,
 Peirot hori kaideran;
 hantik biak eror eta
 hasi dira xikokan

8
 Peirotina leihuan,
 urdan khaka bat auan;
 Peirot horrek eman dirozu
 tripota zelakuan.

9
 Publiertziak ostuak biribil,
 aize denian oro ari dir-dir;
 au ixilik, au ixilik.
 Peirot pito zirzill.

10
 Oihaneke bago zaharran,
 haren peko zaho zaharra;
 entzün diat barda estali diala
 gur[e] xerrhama zaharra.

11	11
Peirotina zahartu	Peirotina zahartü,
Letaginak gastatu	letaginak gastatü;
Ezteietako behar zirozu	ezteietako behar zirozü
khaka plat bat prestatu.	khaka plat bat prestatü.

Hona beraz bi zutabetan tzintzarrotsetako hamaika koplak. Ezkerreko zutabea

6. Ahapaldiz ahapaldikako iruzkinak

Tzintzarrotsetako koplak hauek ahapaldika iruzkin txiki batzuk egitea merezi dute. Iruzkinak alderdi bat baino gehiago har dezake, jakina. Azken puntu honetan batez ere hizkuntza kontuei erreparatuko diegu.

1. Ahapaldian *gaur* adberbioak “gau honetan” esan nahi du. Hitz honek garbi adierazten du *tzintzarrotsak* gauean egiten direla. Gauean egiten hori azken bertso-lerroan *haitatü dügü gai buna* esaldian azpimarratzen da.
2. Ahapaldiko lehen erdia *Tzintzar eta tzintzarrots/tüt eta tütots* tzintzarrotsetako hasiera egin bat da. Serenata horietan erabiltzen ziren bi soinu-tresnen izenak datoz garbiki esanak: *zintzarriak* eta *turutak*. Zaharturik ezkonzen ziren esposberriek, beraz, gau osoan zintzarri eta turuta hots gorgarri eta etengabea entzun behar zuten. Bigarren koplak honetan jaun erretorak baimena eman duela modu ezinago ironikoagoan adierazten da.
3. Ahapaldian koplak zaharretako irudia aurkitzen dugu. *Haltzak eijer ostua* delakoak *Haltzak ez du bibotzik/ezkurrik* balada-hasiera dakar gogora. Ahapaldi honetako *astapito saldoua* delakoak “astapotro taldea” adierazi nahi du guti goitibeheiti. *Hounki jin zideiela* esaldiak “ondo

etorriak izan zaitezela” esan nahi du. Zuberoako *astapito* hitz konposatu adierazkorrak Bizkaiko “astapetro” edo Gipuzkoako “astapistola” adierazi nahi du. Konposizioan parte hartzen duten hitzek ere oinarri bera dute: asto (konposizioan *asta-*) eta sinonimotzat har daitezkeen gainerakoak. Bigarren osagaia, edo hitz nagusia, bederatzigarren ahapaldian ere badator: *Peirot pito zirzill*.

4. Ahapaldian Peirot zaharrak Peirotinaren gainera igotzeko esku-eskailera behar duela dio. Hitz ohargarria da plurallean datorren *zurubiak* delakoa. Ahapaldi honetan datorren *tu* adizkiak ere objektu zuzen plurala markatzen du.
5. Ahapaldia gordinenetakoa da. Ahapaldi honetako ideia bortitzak txikitoetan eta beste kanta batzuetan ere ematen dira, gorago ikusi dugunez.
6. Ahapaldian Peirotina *susa(ra)* dago. Behien estalnahia da susara. Bigarren bertso-lerroan garbiki esaten da: *behi zahar bat bezala*. Animalia arrak estali ohi du emea. *Estali* aditza animaliei dagokie, ez pertsoneri. Tzintzarrots hauetako kopletan Peirot zezen zahar bat da eta Peirotina behi zahar bat. Uste izatekoa da Etxahunek “Maria Solt eta Kastero” kantoreak ondu zituenean tzintzarrots askotako irudi bat bertsoetara ekarri zuela.
7. Ahapaldian *Peirotina kachetan* delakoak emakumea “aulkian edo aulki gainean” dagoela adierazten du. Peirot gizona, ordea, *kaideran* edo “sillan” dago. Biak erorita dauden lekutik, beraz, *chikokan* hasten dira. Xikokan ez da besterik, hiztegi-tako azalpenak adierazten duenez, “cum femina coire”. Bi-biak, beraz, leku apal batetik erori eta xikokan hasten dira.

8. Ahapaldia koprofilikoa da. Peirotek Peirotinari txerrikaka ematen dio tripota delakoan. *Tripota* “odolkia” da.
9. Manuel Lekuonak zioenez, kopla zaharraren teknika dugu ahapaldi honetan. Publiertziaren ostu ugari, txiki eta biribilak haizea denean ikaraka hasten dira. Peirot ere gisa berean ikaraka hasten da.
10. Kopla zaharraren teknika duen ahapaldia. Zer esan nahi ote du hitzez hitz *Oihaneko bago zabarran, haren peko zaho zabarra* irudiak? Hérellek euskarazko ahapaldia transkribatzen ez badu ere, frantseseko itzulpena ematen du: *Le vieux hêtre de la forêt, la vieille mousse qui s'étend dessous...*. Itzulpen honen arabera, *zaho* hitza “goroldioa” da. Ez dut inongo hiztegitan adiera hori aurkitu. Hurbilen dagoena, beharbada, Azkuek Zuberoako Zalgizekotzat bildu zuen *zaho* “planta que se usa para hacer estiércol” edo Lhandek dakarren “herbe longueet jaunie (on en sert pour rembourrer les matelas, quelquefois aussi pour en faire du fumier”. Ahapaldi honetan Peirotina zerrama zahartzat hartzen da. Seigarren ahapaldian, ordea, behi zahartzat. Seigarren ahapaldian bezalaxe, zerrama estali egiten du apote zaharrak.
11. Ahapaldi koprofilikoa, zortzigarrena bezalaxe. Hizkuntzari gagozkiola, *plat bat kbaka* espero izatekoa zen eta ez *kbaka plat bat*. Balada zaharretan, esaterako, *gaitzeru bat urre* aurkitzen dugu Baztango Elizondon bildutako “Frantziako anderea” balada gaian.

Jabier Kalzakorta

HIZKUNTZA-ANIZTASUNA BERMATZEKO URRATSAK JOMUGA

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiet KARMELekeo lagunei aldizkari honetan eskuartean dugun proiektu hau partekatzeko aukera eskaintzeagatik. Halaber, aitortza egiteko ere baliatu nahiko nituzke lerro hauek, hain zuzen ere, KARME aldizkariak gure hizkuntzaren berreskurapen-prozesuari egiten dion ekarpenarengatik.

2013ko apirilean Donostia/San Sebastián 2016 erakundearen arduradunak gurekin jarri ziren harremanetan. Bi arrazoi nagusi zituzten KONTSEILUarekin biltzeko. Batetik, Europako Kultur Hiriburutzaren prestakuntzan bermatu nahi zuten gizar-te eragileekiko elkarlana eta eragileen iritzi zein proposamenak proiektuan txertatzea, eta kontuan harturik KONTSEILUA euskalgintzaren bilgune nagusia dela, interesgarritzat jo zuten gure erakundearekin harreman zuzena egitea. Bestalde, proiektuak berak jasota zuen *Herio(b)otzak* atalean hizkuntza gutxiagotuei buruzko biltzarra antolatzea aurreikusita zegoen eta gure iritzia jaso nahi zuten.

Lehen eskaerari dagokionez, duda-izpirik gabe baiezkoa agertu genien, eta garatu beharreko proiektuetan euskalgintzako eragileak hor kokatzeko konpromisoa hartu genuen. Bigarren eskaerari dagokionez, proiektu horri buelta batzuk eman behar zitzaizkiola proposatu zitzaien. Izan ere, Donostiak 2016an Europako Kultur Hiriburutza jasotzeak ekarpen kualitatiboagoa egin behar zuela adierazi zitzaien. Alegia, Europa osorako ekarpena egin behar zela iradoki zitzaien, eta

hori ahalbidetuko zuen proiektua jorratzeko konpromisoa hartu genuen. Hain zuzen ere, nazioarteko hainbat aditu eta elkarterekin kontrastatu ostean, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko protokolo baten prestakuntza eta horren aurkezpena Europako Hizkuntza Aniztasunaren Goi Bilerara batean.

Zergatik halako proiektu bat?

gizaki orori dagozkio eskubide eta askatasun berdinak; ez da inor diskriminatuko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. Halaxe dio, behinik behin, 1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak.

Gizakiaren oinarriko eskubide horietan kokatu behar ditugu, zalantzarik gabe, hizkuntza-eskubideak. Hizkuntzek komunikatzeko balio dute, baina hizkuntza-errealitatea ezin zaio lotu bakarrik dimentsio komunikatiboari; hau da, hizkuntzak ezin dira kulturetatik bereizi. Hizkuntzen eta kulturen arteko harremana ukatzen denean, hiztunen eta herritarren duintasunari muzin egiten zaio. Hartara, hizkuntza aniztasunaren aldarrikapena pertsonen eskubide guztien defentsarako ekarpen gisa ulertzen dugu.

Horrexegatik, garatu nahi dugun dinamikak tresna bat eskaini nahi du bide honetan; hain zuzen ere, gizarte-ongizatean eta elkarbizitzan laguntzeko ekarpena; bai eta bakean ere. Izan ere, hizkuntza-komunitateekiko jardun demokratikoen bilakaerak giza baldintza guztiekiko errespetuaren bermea ekarriko du.

Europa osoan zehar hizkuntza komunitateak euren berrezko hizkuntzetan bizi ahal izateko antolatuta dira. Ehunka dira hizkuntza gutxituen garapenean, hainbat eremutatik, lan egiten duten gizarte-erakundeak. Proiektu honek horien bil-